

berdinekoak dira, lerro gutxi batzutatik orrialde mordoskaraino-koak. Artikulu nagusiak tamaina haundiagotan emanda daude, eta nolabait zientziaren bizkarrezurra osatzen dute. Dena den, modu batean edo bestean, izenburuaren azpian gai edo kontzeptu bakoitzaren argitasunak eta definizioak eta berriak ematen dira.

Lexikoak garrantzi handia du gisa honetako hiztegiaren oinarrian dauden asmoetarako. Horregatik ere, noski, ematen zaio hainbeste toki (289-588 or.). Hizkuntzen elkar arteko lexiko konparaketa errazteko ezin egokiago eta txukunago aurkeztuta dago le-
xikoa hiztegia.

Hiztegi tekniko hauek erabili behar dituztenei dagokie eritziak eman eta kritika egitea. Ez bait dago ahazterik hiztegi hauek, UZEIkoen planteamendutan, probisionalak direla.

Besteoi, zientzi arazo horietatik aparte samar bizi garenoi, lan horren garrantziaz jabetzea eta poztea dagokigu. Zorionak UZEIri eta beronen lankideei! ■ *Manolo Pagola.*

Bertsolaritzaren bide berriak

Bertsolaritza modan jarri bide da. Zorionez. Komunikabideek aintzat hartu dutenerako, askok uste baino jendearen atxekimendu gehiago duela jakin ahal izan dugu.

Bertsolaritzaren arrakasta dela eta, txapelketa dela eta, egun hauetan behin eta berriz entzun dugu bertsolaritzan epe berri bat hasten dela, Amurizak markatzen duena. Berritasun hori baieztu egiten da, afirmatu, baina nekezago deskribatu, xehetu. Badago zerbait, baina zer? Nik behintzat ez dut orain artean definizio komentzigarririk entzun.

Berritasunaren auzia aparte, txapelketa honek gauza bat erakutsi du argi eta garbi: Xabier Amurizaren maisutasuna. Zalantzagabekoa. Bidezko denez, Amuriza modan dago. Eta honekin, beronen bertsokera, beronen «gaiak», e.a. Hemen hasten dira nere kezak. Nago bertsolari batek baino gehiagok Amurizaren aurrean halako konplexu moduko bat ez ote duen sentitzen; bertsolari batek baino gehiagok bere ondoan oso goitik ikusten du Amuriza: kulturaren, musikan, olerkitan, euskararen.

Amurizak sortuko du bere eskola. Izango ditu jarraitzaileak. Baina kasu, bertsolari eskola bat baino gehiago behar dugu. Euskal Herrian beti egon da bertsolari «kultoa» eta bertsolari «herri-tarra»: Bilintxen ondoan Xenpelar, Otañoren ondoan Txirrita, Basarriren ondoan Uztapide.

Aniztasuna, pluralismoa behar dugu bertsolaritzan ere. ■ *Joan Larrinaga.*